

Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren kostuak %0,1 igo ziren 2005eko otsailean

Azken hamabi hilabeteetan (2004ko otsailetik 2005eko otsailera) eraikuntzaren kostuak %6,8 igo dira.

EAEEn eraikuntzako kostuen indizeak %0,1eko igoera izan du 2005eko otsailean, aurreko hilabetearekin erkatuta. Horrela, eta EUSTATen datuen arabera, hilabete horretako urte arteko tasa %6,8raino igo da.

¡Error!Marcador no definido.

2005eko otsailean lanekuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (%0,0), aitzitik lehengaien kostuek %0,2ko igoera izan dute.

Eraikuntzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreek bilakaera ezberdina izan dute; Eraikuntzak %0,1eko hazkundea izan du aurreko hilabetearekiko, eta Obra Zibilaren lehengaien kostuek %0,3koa. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaerari dagokionez, antzeko ibilbidea izan dutela egiaztatu da: Eraikuntzako lehengaien kostuak %8,2 igo dira, eta Obra Zibileko lehengaien kostuek %8,1eko igoera izan dute.

Otsailean, prezioaren hazkunde handienak, besteak beste, asfaltozko produktuetan (%3,7), petrolioaren eratorrietan (%2,8) eta kare, igeltsu eta eskaiolan kontsumitutako lehengaietan eman da. Aitzitik, prezioa murriztu da, besteak beste, bulegoko materialen (%-3,5), energia elektrikoaren (%-1,7), olio eta koipeen (%-1,1), beiraren (%-0,6), burdin eta altzairuaren (%-0,3) eta erauzketa-agregakinen (%-0,2) lehengaietan.

Sektorean kontsumitutako lehengaien prezioen artean, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak hauexek dira: hoditeria metalikoa (%41,4), burdina eta altzairua (%33,6), asfaltozko produktuak (%29,9) eta petrolioaren eratorriak (%21,5). Bestalde, urte arteko prezioetan (2004ko otsailetik 2005eko otsailera) murrizpenak izan dituzte beiraren (%-4,9), bulegoko materialen (%-3,4), energia elektrikoaren (%-2,7) eta zur eta kortxoaren (%-0,5) lehengaiak.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2005EKO OTSAILA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	118,6	0,1	6,8	2,9	
ERAIKINAK	118,6	0,1	6,9	2,9	
OBRA ZIBILA	118,6	0,2	6,5	2,9	
LEHENGAIEN KOSTUA	115,7	0,2	8,2	2,4	
ERAIKINAK	115,8	0,1	8,2	2,4	
OBRA ZIBILA	114,9	0,3	8,1	2,2	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	125,4	0,0	4,0	4,0	

Iturria: EUSTAT

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp